

**Xabier Lizardi**

**BIOTZ-BEGIETAN**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen jatorria:

<http://www.jazzfree.com/jazz9/arrain/>

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00223.htm>

Opari:

*Maite: bion aur, il ta biziēn, oroiz*

BIOTZ-BEGIETAN zatzaidate sortu:  
biotzenago batzuek; besteak  
betsein-betseñotan... Biotz-gabe ta itsu,  
nork, izan ere, bil olerti-loreak?...

# YAUN ERRUKIORRA

*Amalaukoa.*

*(Egilleak gazteleraz idatz  
eta gero berak euskeratua.)*

Txerrenek lardaskatuzko loidi iguingarrian  
narras dut gogoia: zere iduriz sorturiko  
anima garbia: zere eskuek yantziriko  
soiñeko zuria... Yauna, ogen egin nuan!

Lor-atsekabe larriak sortu zitun nigan  
ogenak; miñago baita, eztizkoa baiño.  
Beldurrez ninduzun, Yauna, banekialako  
tximist-ortzirien yabe zu zeundela goian.

Ta, zure zigorbidezko oiñaztarri larria  
usterik, yo dizut begiz ortzia, izu-izuan...  
Etzenidan, Yainko on orrek, eguzkia yaurti!  
Etzenidan uka ere berorren argia!  
Errukizko izpia zeneriodan, artean,  
ezin-agortuzko Maitasun-Iturri bizi!...

# OIA

Neke-sendalaria,  
buru-argitzaillea,  
lanaren saria...

Arnestegi guria,  
naigabeen azkaia,  
nagien nausia.

Bitez agur nereak,  
afalonduon beintzat,  
guztiak zuretzat.  
Ta «aita-gure» bat ere  
biyoa, zu asmatu  
zinduanarentzat.

Baiña... Lasatu nadin  
orain, «aita-gure»-ka  
eraso baiño leen,  
yaun zintzo orren baimenaz,  
mordoka datozkidan  
neurtitzok esaten...

\* \* \*

Afaldu det oparo.  
Betazalok, otoika,  
eskatzen zaudate.  
Aurrean zu, zabalik,  
elurra ainbat zuria,  
begiok zakuste.

Sartu ditzadan leenen  
estalkiok azpitik,  
dagokion neurriz;  
oiñik irten eztaidan  
gaberdian —oi baitu!—  
lotsagabekeriz.

*Apatx*, orain!... Biyoaz  
oiñetakuok gora,  
abea yo arte:  
nere pozaren berri  
auzo goi eta beekoak  
ikasi bezate!

Txamarra kendu,  
bota galtzok ere: ez atsedeen...  
Orrenbeste neke!...  
Zuurragoak izanak  
dituk ene guraso  
Adan eta Ebe!...

Noizbait! Gerturik nago.  
«Aitaren» egin eta  
yo dezadan murkil.  
Bat, bi, iru, lau... aguro!  
negu-gauaren otzak  
ez nazan bertan il.

\* \* \*

Orra barruan, yaunok,  
maindire leun artean  
bilduta, buru-oin.  
Sarrerako otz-ikara,  
baiñan, samurtu arte,  
arren, pixkat itxoin.

Orainue, ba, muturra  
zerbait atera daiket,  
berriketa-yarrai.  
Zu goratzen, maitea,  
logurak autsi arte  
ez dut ixildu nai.

Ai, nolako zoroak  
gauetz kalerik-kale  
ibil oi-diranak!  
Arkiko aal-dituzte  
asun miñez beterik  
iñoiz beren oiak!...

Atean aize latza  
dabil, aserre... Noski!  
oirik ezpaitauka...  
Leioan txingor-otsa da,  
neri loa, nonbait,  
galerazi-billa.



Lan gaitza, gaitzik bada.  
Ateko giro txarra  
lotarako onena;  
seaska ustu genduan  
aur samur-azitxuon  
*llo-llo* biguiñena.

Biar?... Gogapen txarrok  
urrun! Egun banari  
gau bat darraikio  
egiñaz atsartzeko,  
ez eginkizunarren,  
orde, kezkatzeko.

Ta... irakurle maitea,  
laburrerako oraintxe  
berriketan nuzu...  
Begiak itxi zaizkit,  
burutzar au moteldu...  
arnasa... ba... kan... du...

... Ames dagit, basoan  
il nauela, parreaz,  
maitagarri batek,  
ta, gozorik, illeta  
abesten didatela  
berreun milla lorek...

... Ames dagit nautela  
tximirritek eortzi  
abaraska baten,  
ta illobia, lasaki  
ia ixilka, ari naizela  
parra-parra yaten...

... Ames... Baiña, zer dantzut?  
Irakurle guztiok  
zurrungaka lorik?  
Nere neurtzitzok orren  
lo-erazle bizkorrak  
uste ez nun ziranik!

Beraz, gabon, gazteok...  
Baiña... nere buru au,  
yas...! nola burutu?...  
Oi-asmatzaillearen  
onez agindutako  
«Aita-gurea» aaztu!

Gizagaxoa..., noski,  
on-utsa bide-zanez,  
zeruan aal-dago!  
Nere «aita-gureen»  
bearrik, beraz, ez du,  
alegia, izango.

Gauzok ala dirala,  
laga dezaket «aita-  
gurea» biarko...  
Atean euri-otsa...  
aize-zotin luzeak...  
Agur... Da... gi... dan lo... o... o...

# MENDI-GAIÑA

Maite ditut gaillurak  
argiak ez beste...  
Ai, egaztia banintz  
gaiñik-gain nenbilke!

\* \* \*

Oi, udaberri-goizez  
mendiaren gaillurra!...  
Oi, aren ametsezko  
zorakortasuna!  
Zein ezkutuzko indarrez,  
zein atsedeen-egarriz,  
zein gorago-yoranez  
narakark igana?...

Egiz, maitagarriak  
dituk ire basotan?...  
egiz duk arnaskai bat  
ezilkortzen duna?...

egiz, eguzkiaren  
leendabiziko muiñaz  
sortzen duk zorunaren  
lore ezezaguna?....

Nik amestan bezela  
ote-aiz, mendi-gaiña?  
Goi-yauregiko mailla?  
Gotzonen urbilgo?...  
Egiz, Yaungoikoaren  
esku ta aunditasuna  
ote-dituk or goitik  
sumatzen bertago?...

Ire goi urdiñaren  
urre lanotsupean  
beeko txikerkerion  
azkaia balegok,  
arren, adiskide urruna,  
otoi, mendi maitea,

negar-aran beltz oni  
kendu nazakiok!

\* \* \*

Maite ditut gaillurrak  
argiak ez beste...  
Ai, egaztia banintz  
gaiñik-gain nenbilke!

1920

# ZERU-AZPIA

*Frantzeratik itzulia, mamiz.  
(BESSE DE L.)*

## I

Esan amatxo: aingerutxoak  
egoa urrezko badute,  
zeru urdiñean urre-dirdira  
nik nola ikusten ez-ote?...

Parre gozo bat amak eginda,  
aurrari ala diotsa:  
—Beetik dakusgun urdiña zeru-  
azpia baizik ezpaita.

—Ene, ba!... azpia —mutillak dio—  
orren ederra dalarik,  
nolakoxea ote-da, gero,  
zerua goi-alderditik!...

## II

Gautu zanean, ortzi zabala  
bare-ozkarbi zegoen,  
ta izar argien zillar-begiak  
aurrari par-zegioten.

Aur-kezka oro amets eztitsu  
biur oi-diran garaian,  
aurrak, amaren biotz-alboan,  
berriro onela ziotsan:

—Zerua azpitik orren ederra  
dalarik, amatxo maite,  
ai nere poza, zeru-gainkia  
ikustera aal-baningoke!...

## III

Aurraren naia zeruratu zan,  
(alatsu otoitz garbia),  
ta aingerutxoak eska zioten  
Yaunari lagun berria.



Eguzkiaren urrezko yaia  
berriro izeki zaneke,  
begia itxirik zeukan aurtxoak  
zeru-azpia Ikusteko.

Seaska-aldean ama gaxoak  
otoi-zegian, negarrez,  
semea igoa baitzun, zeruko  
goikia ikusi-bearrez.

1925

# ALDAKERI

## Maitezko ipui minkatza

### I

Leioa. Kaiola, bertan.  
Urrezko ariz lotuta, pozik, txoria:  
ez margo, ez eztarria:  
ederrik gaxoa nekez ezertan...

Itzalgarrri matsondoa.  
Ikusgai, berriz, ibai, mendi, baso, zelai,  
ta udaren urrea non-nai...  
Bazun zerk aska-zaletu gogoa!

Maaitiar zitun txolarre  
biurriak, maiz; iñarak aiskide, berriz;  
ta irraka yoan-etorritz,  
illuntzeak ditun sorbeltzak ere.

Txolarreak diotsana:  
«Oi, ene lagun gaxoa! Lotu-gaberik,  
»eure mai gizen bera nik!...  
»Oi, zein maite dudan askatasuna!...»;

Iñarak: «Ene laguna,  
»errukarri aiz;                   ezpaituk iñon kabirik  
te ume laztanek beterik!...  
»Oi, zein maite dudan askatasuna!...»

Sorbeltzak: «Ez duk biguna  
»ire zoria;                    begitu nazak, emen-or,  
»laister bai zabalak mozkor!...  
»Oi, zein maite dudan askatasuna!...»

Txoriak: «Ez zuen ele  
»maitekorrak, ez            emendiko ikuskizurtok  
»iñork ez ezerk, lagunok,  
»ezin naute egiñen askatu-zale».

\* \* \*

Leiora, bat-batean, nor?...  
«Eder-ametsik            eziñena, aragituta!»  
Neskatxak: «Ega», dio, ta  
kaiola zabalduz: «maiteñoa, ator»...

Aren begikun gozoa!...

Burni-tartetik giltzape beltzean sartzen,  
askatasun-egunaren  
urratzea ez dan bezelakoa...

Txoriaren poz-ikara!

Ur-ontzitxoan murgildu ta astinduz-gero  
maitetasunarren ero,  
badoa dei-dion ao gorrira.

«Ega adi, maiteñoa, arin,

»neri biraka; eskuaz bainegok erne

»Laisterrago! Orrelaxe! Ene!

»Ukaldia yaurti, ta atzitu ezin!»

«Gaiztoa! Geldirik! Ator!...

»Nerea aiz noizbait! Laztan bat: orain bestea;

»yan nai aut, ene maitea!...

»Orra, gaurkoz, neri berreun musu zor...»

\* \* \*

Leio-gaiñeko iñarari  
ona zein oar zioskan, ezin obeak,  
txolarre lotsagabeak,  
biurki eragiñik begiari:

«Ikus dun ori, laguna?...  
»Ez din, orratik, orretzek yaso makala,  
»ederrez ain motza dala...»  
(Zozoak beleari... dakiguna).

## II

Uda yoan da. Marduldu zaizka mordoak  
matsondoari. Beiñola  
—egari mozkorra— yo du kaiola  
gazteenik ildako ostoak.

Agur, iñarok... Ai, zuen kabi goxoa  
berriz beterik daneko!...  
Ai, zein luze zuen urreneko  
maitaldiaren beroa!...

Egunak iges,                    ta goiz bat, zuriz yantzia,  
dar-dar yaio zan... Negua.  
Zertan ago, gogo miñak puztua,  
zer dala-ta itun, txoria?...

Oar, baiña, non                    datorren ire maitea!  
Ene!... zerk, ordea, zimur  
eragin ezpañei?... Ene!... nork lapur  
begien irriparrea?...

Leio-kaiolak                    zabaldu ditu, bat-bana  
Sartu du Neguak sudur  
ozpeldu-zorrotza. Txoria, beldur,  
ega da maiteagana...

Ai, aren esku,                    laztankor igaz izana.  
Lore-orria arantz biur!...  
Leengoa ditekek, zakarki elur-  
pera egotzi auena?

Negargarria!                    Leio-ostean itzalia  
bizitz-bizitza uan garra!...  
Ire eguzkiaren illunabarra!  
Betiko il argi guztia!...

Ega, bai, ega! Oro zegok otz, bai bakar;  
oro, bai, ene!, zuria!...

Non yana, ta aterperik non, txoria,  
billa arren adarrik-adar?.

\* \* \*

Gose-nekeak aldurik, elur-gaiñean  
etzin da; ta arin, geldiak  
deituta, gogapen negargarriak  
egotzi zaizka taldean.

Iñoiz ikusi dezute tximirritarik  
iltzeko yausitakoan,  
xomorroek yana nola dagoen  
azkenak egin eziñik?

Bero gozoa! Yantoki alez betea!  
Laztan eztiak goizean!  
Agur, agur!... Oi! Eriotz-aurrean  
etsipenaren nekea!

Iñoiz kabirik                    egin-gabeko gaxoa!  
Elurretan, or, txoria,  
epelak ogetuta, ire kabia...  
leenen bai azkenengoa!...

Elur ta elur:                    elurra, eten-gabea:  
illuntze beldurgarria!  
Astindu nai... Ega nai... Ai, txoria!,  
elurra beti soiñean!

Aleak une,                    diardu, nagiz, Aldiak  
yalkitzen artaburua...  
Agurea baita, dar-dar eskua,  
logura, berriz, begiak...

\* \* \*

Il nai, ezin il...Gauaren azkengabea!

\* \* \*

Eguna?... Bai, nekezkoa;  
ur-esnea baiño motelagoa...  
Eguna noizbait, ordea!



Il-aurreko indar-ondarrak zuzpeltu?... Beintzat  
txoria leioruntz doa,  
mozkorki —alatsu udazken-ostoa—  
egun nekez yaioaz bat.

Mokoz bai egoz       otoikor astindu ditu  
leiarki lausoz beteak...  
Ai, beñere ezpalu zorigabeak  
begiaz laiñoa urratu!

Margoz, bikaiña;       eztarriz, abeslaria;  
bigunki, barru gozoan,  
zatarretsiaren kaiolatxoan,  
lo dago beste txoria...

Errukarria!               Bein eta berriz, alena!  
Nondiko gezi zorrotza  
bat-batez eldu zaik egan, biotza  
yosteko guztiz zuzena?...

\* \* \*

Leio-arrian                      yausi zan,— lauso begiak,  
zutiturik errotxoak:  
beatzak biurri, zabal egoak,  
arroturik egakiak...

1925

# XABIERTXOREN ERIOTZA

*(Nere leenengo Xabiertxo'ren  
eriotz-egunean:  
1925gko. Lotazillaren 24g.)*

I

Gabon-egun-goizean  
Yaun Aita pozik  
yaiki, ta aingerutxoak  
orra non bildu ditun,  
esanik:

Poztu, ene txikiok,  
gaur, arratsean,  
aurtxorik ederrena  
yaiotzekoa baita  
lurrean.

Apaindu, ta zoazte  
guztiok beera  
berri ona zabalduz,  
zuen Yaungoikotxoa  
gurtzera.

Zenbat zerate, baiña?  
Bat, bi, iru, amar,  
ogei, eun, milla... Gutxi!  
Yai ontako, geiago  
nik bear!

Entzun: ega lurreko  
seasketara,  
ta aur zoragarrienak,  
ene maiteok, bertan  
aukera.

Masaillean laztan bat,  
eztiz betea:  
eskutik ar, ta abia...  
orrela ugalduz zuen  
taldea.

Ta, lurbira guztia  
egin-ondoren,  
yaiez yantziz biotzok  
bildu, iñularrerako,  
Belenen.

\* \* \*

Zalaparta bizian,  
txalo yo ta yo,  
Yainko zaarrari oro  
baranoan egatu  
zaizkio.

Ta, aruntz lagun-eginda  
puska batean,  
emen datoz berriro,  
ega-iraulka pozaren  
pozean.

\* \* \*

Yaunaren baratzako  
iturrietan  
murgildu, ta ari dira  
beren buruon eder-  
lanetan.

Gertu-ta-gero, urrezko  
txilibitoak  
aoratu, ta abia  
ziran, zabala arrotuz,  
egoak.

Non dira?... Antxe, urdiñaren  
sakonean,  
ezer ez duzu ikusten  
argizko auts-irakin-  
antzean?...

Noratsu?... Iñon ez. Oro  
leengoraturik,  
begiak ez du yotzen  
urdin baztergabea  
besterik.



Gabon-egun-goizean,  
seaskatxoan,  
Xabiartxo gaxoa  
gaitzak ito-zorian  
zegoan.

—Zer duk, eguzki orrek,  
gure ederrena?  
Nork min egin, esaidak,  
biotz biren zatirik  
maitena?...

Itxon! Ustez, arnasa  
baretu zaio:  
parre-antx gozo batek  
ezpaintxoak argitu  
dizkio...

—Iñoren itz emeak  
entzuten ago,  
geldi-geldirik eta  
bular ez-tian baiño  
pozago?...

Ene! Beldur! Ez il, ez,  
arren, txikia!  
Ez yoan, gure poza,  
ez, gure biziaren  
argia!!

Ene! Gure biotzon  
erdibitzea!  
Nekez arteraiñoan,  
itotako negarra  
lertzea!.

Ene! Amen begien  
negar-obiak  
ondoa yo-eziñak  
egin ote-ditu Yaun  
aundiak?...



Bular yoritik ez aut,  
ene!, ikusiko  
zalapartan edaten,  
gosea aserik baituk  
betiko!...

Eguzkiak inguma  
bezin maitea;  
ala, maiteminduak,  
maite-ezpaiñek ukitu  
lorea!...

Igan ipiñitako  
amesak, baiña,  
auskorrak ote-ziran,  
inguma ta loreak  
ez aiña?...



—Berandu? —Bai, maitea;  
illuntzea den...  
Atsekabeak ez din  
astiaren neurtzea  
yakiten.

—Ixo... Nortzu ditezkeek  
atarikuok?...

Nor zetorkek, algaraz,  
miñagotzera gure  
malkuok?

\* \* \*

*(Ataritik)*

*Etxeko-andre ona:  
kantatzerik nai?  
yaiotzadunak gera,  
begirunez beteak  
zure zai...*

\* \* \*

—Nortzuk dituk?... Esaiek  
alde-egiteko!

—Gorritz argitutako  
yaiotzaz, dun sorta bat  
mutiko...

\* \* \*

(Ataritik)

*Etxeko-andre ona:  
kantatzerik nai?  
Belen-zaleak gera,  
sari-ustez beteak  
zure zai...*

\* \* \*

—Biyoz! —Ez, maitea;  
begira zaien...  
Gurea iñoiz, azita,  
oiek bezela ibiltze  
aal-uken!

\* \* \*

*(Ataritik)*

*Etxeko-andre ona:  
abesterik nai?  
Gabon-zaleak gera,  
ezin-etsiz beteak  
zure zai*

\* \* \*

—Zuzen diok. Aur Onak  
onetsi bitza!  
Sartu, muttil ederrok,  
seaska-alderaturik  
yaiotza.

Sartu, ta yo, beldurrik  
gabe. Gaxoa  
lotan dezute, baiñan  
otsak astindu-gaitza  
du loa...

Yo, bai, gaur baita Aur Ona  
yaiotzekoa!

Yaiki, biotz autsia,  
pozezko yaia baituk  
gaurkoa!

Yaiki, gure maiteena  
Belenen baita,  
ortzi izartuan zear  
ego bigun arroek  
bultzata!...

Oska baitago, urrezko  
txilibitoaz,  
zeuen Gabon-abesti  
berberok Belenen  
yo ta yoaz!

Yo. bai, maiteñoaren  
oroiz, muttillok.  
Gurtu gatzaion Yainko  
aurtxoari biziok  
eta illok...

Aintza goian Yaunari  
askigabea;  
ta, bere naia ontzat  
etsitako lurtarroi...  
pakea!

# NESKATX URDIN-YANTZIA

Udaberri, uste-ezik,  
arki dut basoan.  
Neskatxa da, ta urdiñez  
yantzita ziyoan.  
Urdiña yazkia, ta  
begia areago:  
alakorik itsaso  
barean ez dago.  
Begi eder-goseok,  
ase zakidate!,  
iñon ezpaiditake  
ederrik, au beste.  
Mamia du naasian  
oretua, iñolaz,  
Loreil-laiño goiztar ta  
marrubi-odolaz.  
Arbazta igarrarena  
bezin su zolia  
Egun'ek biztu dio  
yorik illedia.

Aren oiñek ikutzen  
ote dute lurra?  
Ezetz diot: ezpaita  
melgotu belarra.  
Billuzik zan basoa  
negu-ondarrean,  
neskatx urdin yantzia  
bertara danean.  
Zebillela, ats epel bat,  
usaiez yoria,  
dama; ta adar beltzetan  
erne da bizia.  
Orriz-orri yazten da  
basoa, gozoro...  
Bakan-bakanka, leenen...  
Sarri-sarri, gero.  
Eguzki itzulberriak  
(maitari goiztarrak)  
munkatu du basoa,  
(munkatu senarrak)  
Emazte ezkonberria  
dala uste basoa...  
Aren dardar emea  
Aren par gozoa!



Ustez, buru gaiñean  
gaua dut, argia,  
amaika izar urdiñen  
dirdirak yosia...  
Ustez, ur orlegiak  
nituan oiñean,  
izarrok ziralarik  
islatzen urean...  
Gezur amesgarria,  
lillurak sortua!  
Goien urdiña nuan,  
ostoak xeetua;  
beean, berriz, urrezko  
yarioz argiak  
belarrean oi-ditun  
begibil zoliak.  
Marmarra dabil goien,  
ezin daikezuna  
ots ezti dan igerri,  
ala ixiltasuna.  
Bat-batez, eun txoriek  
eztarriak eten,  
ta aberaski zabala  
bitxiz yantzi zuten...

Egun-eunez yantzia  
berrikusi-naiez,  
bira ditut begiak,  
bira, baiña... iñon ez!  
Non da, non da sorgiña,  
basoak maitea?  
Begiaz dut, alperrik,  
yo aren bidea.  
Yoana zan... Yoana,  
neri, biotzean,  
kezka beldur-eztia  
yosi-ondorean...  
Maitetasun-azia:  
ene udaberria:  
neskatx-tankerakoa  
ta urdiñez yantzia!...

# BULTZI-LEIOTIK

Oi, lur, oi lur!  
Oi, ene lur nerea!  
oi, goiz eme, parre gozoz ernea!...

Arto musker,  
mendi, baserri zaarrak;  
ale gorriz  
abaildutako sagarrak:

oro laiño  
mee batek estalia,  
urrez oro  
eguzkiak yantzia...

Nekazari,  
gizandi bat iduri  
soroan zut:  
beyondeizula zuri!...

Zure bazter,  
gurazko aberria,  
doa zoro ta  
(bertan ni) bultzia...

Oi, ene lur,  
baninduzu zerea,  
zu landu, ta zure  
sariz asean!...

Baiñan... ezin:  
beeko bear goriak  
narama... Agur  
soro, sagar, mendiak!...

1929 - Dagonilla

# PARISKO TXOLARREA

Txalarretxo, txolarre,

Paris-erdikoa:

*Bourse*'ko iskanbilla

(gizon zoro batzarre)

ez ote naikoa

i izutzeko, axolakabe biribilla?

Farol itzali baten

txapel-gaillurrera

etorri aiz xuxen

apur ostu bat yaten:

batetik bestera,

txapelaren muturrak arin dituk gaintzen.

Salto banakin, begi

ernaiak lurrera:

ez aiz i makala:

begiraldi luzeegi

gabe, baátor beera:

ez, alearen orde, yasotzera azala.

Kafetxean bainago  
astiaren yabe,  
zer egin oberik,  
(ezer ez gogarago)  
muiñak urtu gabe,  
zerbait, alarik ere, gogo-yolas baizik?

Leioak lauso dira,  
eguraldiaren  
antzo. Barrenean,  
giroaren arira,  
loxustak egiten  
morroi mantal-zuriak daude bazterrean.

Begira, beetik gora,  
berriz txolarrea.  
Keiñuka begiak,  
irentsi du, gerora  
luzatzeka, alea.  
Esku —(?)— peko guri bat boteaz... an'tziak!

Paris'ko txolarrea:  
zertan aiz berezi  
nere erriko batez?  
Azalez, soin-arrea;  
barrenez, biurri;  
kideago zaitetzen... eztakik prantzesez!

Kanpantorre xaarrear  
bata bezin lasai,  
bestea da maiztar  
*Tuileri* goitarrear.  
Egingo nuke, bai,  
angoa lotsa ezetz onuntza banekar.

Nun-naitar izan-miñez,  
ostera, gizona  
bai txori baldarra!  
Alegiñak egiñez  
bebil andik onaa:  
etxez kanpora beti duk baserritarra.

Labur: nere burua  
Paris'en ikusiz  
ain lotu ta arlote,  
otoi nizun zerua,  
zeatz adiraziz  
gizon baiño naiago nukela txolarre.

1930



# OTARTXO UTSA

*(Alaba bakar zuenari,  
aita-alargunak)*

Zumezko otartxoa,  
bazterrean utsik...  
Noizdanik, gaixoa,  
ez duzu lorerik?

Udaberriero  
baizenkustan ikus  
lore-ontzi naro,  
zergatik gaur ain uts?...

Mendian ari da  
kukua kantari;  
Basoa ta Itzala  
elkarren maitari;

mitxeletak, ilkor-  
ezik beren ustez,  
badabiltza an ta or  
lur apaindu gainez...

Zumezko otarñoa:  
udaberria izan  
ta, nola, gaixoa,  
zaude baxterrean?

Yun baita, betiko  
yun, aitaren poza!  
Loreak biltzeko  
ez izaki gauza!

Beso biguin aiek  
gogortu baitziran,  
ta itzali begiek  
gau etengabeen!...

Zumezko otartxoa,  
erraidazu, arren,  
uts duzun ondoa.  
Ez ote, bederen,

loreño bat aaztu  
zure sabelean,  
aita dadin poztu

bere negarrean?  
Ondar ximelenik  
gabe zen otarra...  
Yaso dut geldirik...  
Ari dut negarra...

Geroztik, iñoizka,  
urbiltzen natzaio;  
begira nagoka,  
begira, luzaro

Ta sarri (gogoan  
iduritu bizi)  
lore bat, ondoan,  
eginik du mami.

Lore bat, gorria,  
mardul, eze, beti;  
erts-ezin zauria  
odolezko iduri...

Oroitzeko lore,  
laxtan biotzeko,  
itzali den nere  
izarrarentzako.

1930

# AGUR!

Adiskide kuttun, lagun zorigabe,  
azpildu-gabeko biotzaren yabe,  
onerako zabal, ederrak su-bera:  
atorkit, Onuzki, gaur oroimenera!

Elkar-ordaiñaren ezti berdiñaka  
bein ta berriz uka maitasunak baitik,  
t'ez eskein bizitzak beazuna baizik  
(ala baita mikatz sagar bat elduka),  
aldegiña aiz urrun, lagun biotz-bera,  
adi-mugaz aruntz-erbeste itzalera.

Adiskide laztan, eun bider gaxoa:  
gogapenak elkar bil-ari meeñoa  
beiñola zaik eten... Adi-yauregia!  
yabe dituk, geroz, gaua ta naasia.

Irudimena uan giarra, yoria;  
baiñan, ega-baldar baitabil txoria  
lurrera-bearka zauri doanean,  
orren antzo zian ark oi, maizenean.

Odol eri batek ezetua iduri,  
beltz-ikusbera uan, izukoi, urduri...

\* \* \*

Gaberik gabeen-gaupean bai'ago  
gaztetzaro-ogitik yakide ninduken  
onen onginaia ezpaituk siñisten;  
ai, nik aal-banezaik, nik aal (eztiago  
loak ar-basoan illargia baiño)  
ene oiu au sar biotz illeraiño!

Ene oiu au sar ta biotza biztu,  
ia itzal-yauregian giz-argia izetu!

Ezin aal-baledi, Yaun errukiorra,  
barkatu zaiozu zizukean zorra;  
ta Argi-Aberrian ikus aal-nezake  
lauso-eziñezko adiazen yabe;  
ta aal-bezat, Yaun, otoi, besarka negarrez,  
beste iñon ez ainbat: negarra dan emez!

# BIOTZEAN MIN DUT

*(ILLETA-ERESI)*

*(Amona zanaren eortz-egunean).*

Biotzean min dut, min etsia,  
negar ixilla darion miña.  
Amonatxo bat nun: gaur, enarak  
etorri-garaiez, aldegiña.

\* \* \*

Eguzkirik ez dute  
leiotan zapiak;  
aur-yolasik ez dago  
gaur zure kalean.  
Odeiek lits urratu;  
itsasoak orro.  
Gizadi bat geldirik;  
gero, bat-batean:

Ots!

Ots,

bizion oiñok...

Errezka bi gizonek  
argizai oriak;  
gorputza lau billobok;  
atzetik andreak.

Ai, ene lor arin au  
zein dudan larria!  
Besoez ez lan arren,  
biotzak nekeak...

Ots!

Ots!

bizion oiñok...

Mendea ia betea,  
ta ain illaun,  
gorputz xaar!  
Bezak gogoa goien  
i beziun ariña,  
ta bezat-nik nerea,  
dei nazatenean,  
ezin-itzal-Argiruntz  
egatzeko diña!



Ots!

Ots!

bizion oiñok...

Orain larogei urte,  
kale poz-gabeok  
eguzkiak zitun ta,  
zure aur-yolasak  
alaitzen. Gaur, arriak  
ere baitira itzal...  
nork lekuskez, ikusi,  
urte urdin igesak!

Ots!

Ots!

bizion oiñok...

Egun zaarrak yoan ta  
berriak etorri,  
gaur poz biar oiñaze,  
noiz burni noiz zillar,  
zenbaitek ondamendi  
baituten katea

lore-sorta bekizu  
goi-muñoak zear!

Ots!

Ots!

bizion oiñok

\* \* \*

Bat-batean eten da  
bizion ots ori.  
Gorputza laga dugu  
nunbait. Al-dakit nun!  
Bultza naute barrura...  
ñir-ñir aunitz argi...  
ordia-antzo sar nazu,  
begi-lauso ta urgun.

Ots!

Ots!

enegan, biotz!

Amonatxo! Bakarrik  
zagoku atean,  
otz ta gogor, entzuten  
zure azken-Meza!  
Zerraldo-olen artetik  
(negu-gaua iduri)  
ez al-datortzu, uluka,  
aize erruki-eza?

Ots!

Ots!

enegan, biotz!

Begiok ero ditut,  
noranai doazkit;  
dantza naasi bat dabil  
irudimenean.

Goruntz egik, biotza:  
otoika lasa adi!  
Ixilla sor badadi  
ire barreanean!

Ots!

Ots!

enegan, biotz...

Ordu bete luzea  
Igaro zan. Noizbait,  
berriro lor illauna  
besoek... Urrena,

muño baten gaiñean  
uri ixil bat: arki.. —  
Poz-oiñaze-kateak  
emen dik etena.

Ots!

Ots!

bizion oiñok...

\* \* \*

Ol bat yaso ta ikusi  
dut musu ximela:  
parre-antxa, bizirik  
balirau bezela:

(Ots!

Ots!

ler adi, biotz!)

ordun, ixar bat biztu  
du nere gau beltzak.  
Begioi malko ixil bat  
dardarka darite.  
Noizbait itxaro-kabi  
biur dan biotzak:

(Ots!  
Ots!  
yauzika, biotz!)

«Agur! (oiuka dio)  
»gorputz ximur maite!  
»Agur, amonatxoa!  
»Egun Aundirarte!...»

\* \* \*

Biotzean min dut,  
min etsia,  
zotiñik-gabeko negar-miña.  
Alatsu txoriak, uda-ondo,  
negua du galazi-eziña.

# ZUAITZ ETZANA

Zuaitz bat, urtezua, lurrera botea...  
Zaarra izanagatik bazun ark osasun betea!  
Ondoan orra agiri, zomak ezotua,  
aizkora ankerraren ebaki sarri-berritua.

Erorkoa bigundu-bearrez autsiak,  
adarretarik zenbait lur urratuan yosiak.  
Goruntz, luze-luzerik, gaiñerontzekoak,  
otoi erruki bekiela zeruko Yainkoak.

Zuaitz lagunak begira agozkik ixilik,  
erroak dardarati, adaburua geldirik.  
Lurra naigabez zegok, aizea zinkuruz;  
txoriak urrun aldegiñik, izuaren izuz.

\* \* \*

Arbaso pakezale agurgarri orrek  
iñorentzat onginaia besterik izan ez dek.  
Betidanik, eskale labur, emale eder:  
ire bizi guztian, txarkeri bat al-duk ager?

Eskatu?... Aizeari, laztan bat oxkiro.  
Txoriari, kanta zezala goizetan eztiro.  
Andre lurrari, zertxo? Ezegai-ttando bat.  
Zer-eskaturik ez uan, soilki... gizonarentzat.

Eman, ordea?... Txoriari, abaroa;  
aize adiskideari, ots eztirik nun-yoa;  
lurrari, bustibide ta zimauskigai;  
ar berberak arki ditek igan babes alaia.

Ta gizonari?... Geien orretzek iri zor:  
ari ainbat ik emanik etzegok iñun iñor.  
Ire itzala, ire egurra, ire edergarria,  
ta arnaririk artu-ala, gizonaren zatia.

Azpian duk ikusi aren gorabera:  
aurtzaroan yolasti, mutilletan amets-bera;  
lan-izerdiak eta ondo-atsedena;  
ille-urdu ta aguretxea; ta azkenik... azkena.

Bitartean, zuraren biribilkietan,  
ainbat mende esku sendoaz idazten iardukan.  
Amaika aldiz lurpera gizonak gizonak...  
Zuaitza bizkor beti ere zedukan Yaun onak.

\* \* \*

Izadiari zizkiok kendu-alak ken...  
Aren irentsi-bearra ez dik ezerk asetzen.  
Larreko zezena, oianeko basauntza,  
40 odeietako txoriak... Oro gizonak eiza...  
Azkenik, beartu duk zuaitz zaarraz ere,  
yauregi bat eraikitzeke zutikako ta abe...  
Belarpeko txuloa kilkerrak bai eder,  
baiña gizontxo —alegia!— ez izaki kilker.

Ta an datorkik beiñola, eskuan aizkorez:  
zitalak nai au eratxi, burruka koldar-bidez!  
Ark yo ta ik eán baituk burua geriza,  
amildu aiz goitik, atereaz lertu-ots gaitza.

\* \* \*

Idiak or. Kate bat lotu dik itzaiak.  
Zerrak, ozen, urrundik, irrika dizkik erraiak...

Lurra ta biok elkarri munka zaudate:  
ain adiskide zaarrek azken-agurra bai neke!



\* \* \*

Ba'aramakete, eraman!, zuaitz eroria...  
Errukia garaituz, betor nerekoikeria.  
Ba'aramakete, eraman!, bestela, mendia  
ezpainikek geiago begiaren pozgarria.

1930

# URTE-GIROAK ENE BEGIAN

## I — BIZIA LO Otsail-erdi

Egur ezearen kea  
goiak du kolore:  
egunaren atariruntz  
zauri bat, gordiña,  
odol-bearrean urre.  
Sakoneko laiñoz gora  
tontorrak elurrez:  
itsasoa iduri,  
ametsezko ontziez.

Bide-ertzean, ez marrubi  
ez belar gizenik.  
Otalorea, bakanka,  
goitzxo karraxika,  
Udaberriari deika.  
Or pago bat, lerdan-aski  
igazko apaingarriak  
(gaur orbel gorriak)

oso yaregin nai-ezik,  
nola baituten oi  
neskazar ezin-etsiak.  
Ostobakandu-sasian  
kabi bat, uts, urratua...  
Arru-beetik errekak ots,  
euriteak bulartua...

Basora naiz. An-or,  
goldiozko ogean,  
yoan-elurte gaitzaren  
ondarrak nabari;  
kabidun usoak, ala  
emazte zuurraren  
zapiak iduri.

Aritzak, eundaka,  
aier zazkio goiari,  
argi-leenenkia  
egarri baitute,  
arako urrezko zauria  
izanik iturri.

Orregatik daude  
luze-luze egiñik,  
artean oiñak illunik,

azken-arbazta-begiez  
udaberrirako  
ornitzen biziez.

O, zein aizen eder loa:  
eriotzaren anaitzako  
bizitzazko urloa!...

## **II — Sagar-lore Loreil-bete**

Anitz egunez, ez gera alaitu  
lurtarrok. Goien sar egin baitu  
Euri'k Eguzki giltzapean;  
yaun orail eder, legorteen aita,  
katez loturik egona baita  
odei bustien sabelean.

Gaur, orra agiri, tarteka, urdiña...  
Sor zait barruan larrera-miña;  
ta, aspaldi ez-ta, mendi-aldi.  
Bete ditzadan argiz begiok;  
eten zain-giar lotuegiok;  
bularra asetuz noan geldi.

Badut zalantza zein giro izaki;  
otzaren aala danentz ebaki;  
ikus ezpaitut Udaberri...

Baiña, bat-batez, gain-beera, maldan,  
moltso zuri bat... Elur ez al-dan,  
loreak ote... aal igerri!

Ari beltz oker naasi sareak  
eundaka atzitu ditu... loreak?  
elur-malutak?, mitxeletak?...  
Itxon: txori bat, zear, egaka  
dabil, kabigai-lorrez, esaka:  
—Gaur dira gure maite-bestak!

Sagasti berri, sagasti zuri,  
inguma-atsegintokia iduri,  
elurte arian geldia!  
Ezin urtuzko txingor ugari,  
azpi gizenean duk nabari  
zelai-bitxizko lorea...

Zertan udalen dan igertzeko  
begi bear diot bide-ertzeko  
pago pertxenta gazteari,  
ta ikus orbelez dan erantzia  
ta apaingarri berriez yantzia,  
baso zabalen aitzindari?

Zertan bear dut yakin Itzala,  
pagadiaren ume yaukala,  
neska-kozkortzen ari al-dan?...  
Kilker olerkari arloteak  
neurtitz ozenak ditun boteak  
lurrezko yauregi-atean?...

Bego tximirriten egaketa;  
beude marrubi-loreak, eta  
irusta-sailla ere bego:  
dantzari-talde, *Baco*'tiarrak,  
naaspil zoroan zuti-baldarrak,  
esku goituan ontzia ardo...

Ene begiok, ez so besteri:  
bide-ertz onetan nadin eseri,  
iri begira, sagastia...  
Sagasti gazte, sagasti zuri,  
inguma-atsegintokia iduri,  
elurte arian geldia!

Txuriaz naasi, pipil gurien,  
ler-gabe-lore zabal-zorien  
gorrixka, nabari duk sarri,  
odol-tantoak antzo... Begira:  
erditze baten aztarnak dira:  
Bizi-erditze zoragarri!

Ibil, txoriok, ta kanta alaiki.  
Negu agurea illa da, baiki,  
lurra soil baitago elurrez:  
oro dezaken esku naroak  
erein baititu zuaitz-soroak  
ogi berriaren apurrez...

Bekik iretzat oiu alai au,  
sagasti, iretzat; bereizki bai'au  
yaiez yantzi zorna berriak!  
Bizitza duk agiri garretan...  
Bizitza, ler-berri, adarretan...  
Igan dik sort-ogea Udaberriak!

### **III — Baso itzal Uzta-uzta**

Urrun duk, sagasti berri, lorea.  
Arizti, urrunago elurtea.

Gaillurrera igoa dugu Iguzkia,  
nondik yaurtiko zutago gezia.  
Begi-ogeak nork sakon-askiak  
gaiñez ez dakien aren argiak?

Uda! Mendiak i au eguerdi,  
ta urrezko opor-aro, ta abaro-aldi...



\* \* \*

Gurdibide bakan-ibil ertzetan  
masusta-sasia dago loretan.  
Ango kixkalbearra! Ango marmarra!  
Ego-begi izaki ta, aizeak garra:  
irakin diraki, beroz ezezik  
erleen egoek yo ta naasirik...

\* \* \*

Arru-beetik ez dator gaur ur-otsik...

Txoriak abaroetan ixilik,  
goiz-yardun bakarrez etsi baitute.

Egonean daude zuaitzak ere...  
Sagarrak eskuan ditu igaliak  
Eguzki erregeri eskeiñiak:  
geldiak gizendu, egonak goza,  
nagiak noizpait yalkiaraz bitza...

\* \* \*

Beroak zapalduta datza oro:  
bizidun, landare, aitz eta soro.  
Muskerra ta artoa dagotzu soilki  
eguzki gorritan ezin izerdi.

Neguz untzi lirain, laiño-gaiñean,  
Txindoki, orain agokit aurrean,  
goriak astundu-tantai arrizko,  
beeari iñoiz baiño errotuago.

Beste erpin musker bat or baita agiri,  
maldan-gora zaizka zuaitzak geldi:  
oker, ats-estuka, lurrari itsatsi-  
mendizale makal unatu iduri.

\* \* \*

Zigor ontaz, Uda, ba'al-duk aterpe?  
Ara zuzen nazak, luzatu gabe!

\* \* \*

Leioak itxitako yauregia  
basoak iduri. Lo nagusia.  
Baiña, badu norbait —zoragarria—  
bidazti-zai eder: bai, alegia!  
Begira non dedan, aterpean zai,  
gorputza sotilla, betartea arrai.

Itzal!, Baso'ren ume yaukal,  
xaloagorik ezin aal:  
beltxeran, begi bai azal:

Itzal!...  
Itzal!...

Sar naun geldixe, taupaka biotza.  
Ar maitez, otoi, lerregin-arrotza...  
Oial illaun batez legortu didan  
bekokia. Gero, aldamenean  
atzaidan eseri, andereño otxan,  
ta, ai, zein gozo gauden, aopekotan!...

Atsedenaren eliz, zutoiz bete,  
osto-pillo ta izar izunak abe:  
ta i bertan oianeko yaupaleme...

Gure inguru lurra lurrun-yario,  
urre urtuzko yasak baitaragio.  
Euri gori ortaz basoa aterri.  
Gauden, bada, maite, basoan geldi.

Zuaitz-tartetandiko urre nabarra  
bezagun udaren bitxi bakarra.  
Begoz emendik ate ire ederkiak;  
ar bitzate besteek laztan goriak.  
Nik ireak naiago, oianeko Itzal,  
ezpaitiñe egiten odola kixkal...

\* \* \*

Uda! Gar zoragarri, suzko itsaso:  
untzi geriza untan nai aut igaro...

*(Bigarren Euskel-Olerti-yaiean, Tolosa'n,  
zillarrezko aritz-abarrez sariztatua).*

## **IV — Ondar gorri**

### **Azaro-leena**

Uda —suzko itsaso— baitut ibilli  
gerizpe atsegin bat nuela untzi,  
ondoaz legorra yo dit emeki:  
ondarreta bat du, soil eta gorri.

(Itsasoak bai baitu, urrun-ertzean,  
urre gorizko bide-goenean,  
legor bat —odol-uts iñularrean—  
Eguzki nondik sar atsedenean...)

Aingura bota dut Arratsaldean:  
oiña dut ezarri Udazkenean...

\* \* \*

Berriro igo nauzu ene mendira,  
oroigarri zaarrei maitez begira...  
Andre Lurrak yaulki ditu igaliak;  
zurbil dauka arpegia, itzal begiak.

Gurdibide bakan-ibil ertzetan  
untza dago oraindik, nagi, loretan.  
Or-emenka, lore zimel gaiñetan,  
ingumak ari, gozo-miazketan...  
Mitxeleta gorri, zarpil egoak:  
maitatzeka atsotu diranetakoak.

Kemenak uts-eta nekez bainoa,  
zalantza eiut zaartu naizelakoa...  
Udazkenak aulagotzen dit atsa,  
orbekak ozenagotzen oin-otsa,  
aldapak larriagotzen biotza...  
Leenetan ez bezin autsia natza.

\* \* \*

Arru-beera itzuli nago. Ixurkia  
basoz ta garoz yantzia:  
noizbait orlegi, gaur nabar basoa;  
tarteka gorri garoa.  
Beste gain erpin bat bazan agiri  
leen eze: gaur burni-meatz iduri.  
Lurraren azala erdoitua da,  
ala dut odola begietara...?

Aizea dabil, busti setatia:  
lurrari daragio ots negartia.  
Larreko xornorro ozenen zantzurik  
ez da iñon. Aspaldidanik  
ixil zen olerkari yaun Kilkerra:  
aixtian, alper eder den Txitxarra.

Ta zuek, nora, txoriok, saldoka  
zoazte, iraduz urrundu-bearka?  
Adiskide Urretxindor il zaizute,  
ta aren ilkizunetara  
—egoak ikara—  
berandu-beldurak al-zaramate?

\* \* \*

Oi, zein dan ituna  
beera-bear au!  
Nik ez nai eguna  
biurtzerik gau!

Giroen argia galtzerakoan  
leen-oiartzuna dut ozen gogoan.  
Iru giro izanok, nik dei ta atozte:  
nork-zeren saria ekardazute:  
batak itxaro, besteak berbizte;  
irugarrenak bizitza-indar bete.  
Oro bear zaitute ene biotzak,  
Leen-min baidamada neurtitz zaarren otsak!

*(Negu)*

Ikus bezat, Yauna, bein ta berriro,  
otalore eziñegona...

*(Udaberri)*

Bekusat sagasti gazte elurgiro,  
udalen-sortoge dana.  
Ikus bitzat arako irusta-saillak  
eskuan ditutela ardo-txanbillak.  
Entzun bezat iñoizko olerkaria,  
zelaiean baitzun lur-yauregia...



*(Uda)*

Yainko-muño-gaiñetara baiño leen,  
(ederra baita bizia!)  
urrezko itsaso bebilt urduria,  
Itzal dudala laguntzaille lerdan.

\* \* \*

*(Udazken)*

Ta udazken-atsarreko goiz batean  
esnatu nadi Yainkozko Betean!

1930

# EUSKO-BIDAZTIARENA

*Unamuno'tar Mikel, yaun argiari,  
gure ausardi gorriaz yabetu dedin.*

*Heuskara, ialgiadi kanpora!  
Heuskara, habil mundu guzira!*  
(Etxepare'k, orain lareuntsu urte).

## BIDAZTIAR-DEI

Aberriaren abots ezitia,  
gogamenaren ezkon xuria:  
ekatzan esku guria,  
atorkit geldi-geldia,  
uztagun, aldikoz, Euskalerrria.

## **LARRE-LORE**

Eder aunagu, mintzo yoria,  
eder, benetan, garoz yantzia:  
larre-loretik eztia,  
basotik euskal-mamia,  
laister sortzen aal-duk, Olerkaria!

Ta, ala Yaunaren gogo baledi  
nik gogo dudan bezin gartsuki,  
euskotar azal ta mami,  
gure erriaren olerki  
garaia, norbaitek lenbait-leen begi!

## **ORO-MINTZO**

Baiña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
yakite-egoek igoa;  
soiña zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa.

# AMETS-BIDEETAN BARNA

Ez adi beldur, nere Maiteder:  
baserriz landa nai aunat ager-  
arazi, bazterrik-bazter,  
arroki; ezpaitun ezer  
lurbiran ederrik i bezain eder!

Gogamenaren ezkon ez-antzu,  
eztei-ondoko bide diñagu.  
Otoi, Yauna, ibilgo-buru,  
maitasun-edermin-zitu,  
aur begi-argirik anitz bekargu.

\* \* \*

Itxaso bare, zelai urdiña,  
muga-biribil, belar-berdiña:  
goizaldea duk sorgiña!  
Dirdaiez ikus egiña  
mende-neurle dugun kurpil ariña...

\* \* \*

Iguzkipean ugartedia...  
Ur zabalean oial zuria...  
Zuaitz arrotzen azpia,  
eun oztiñek itzalia!  
Or bide-zetzan Gerbault bakartia...

\* \* \*

Lekaro zabal lurraren gerri,  
ondardi kixkal eriogarri:  
bidazti-begiek sarri  
aidean baso ta iturri:  
bertaraiñokoan ondarra gorri!

\* \* \*

Dagigun arraun Izotz-errira,  
zaarren aztarrik danentz begira:  
amaika yoan ta bira  
egiñik igaz baitira,  
eskuan arpoia, soiñean zira!

Legorra zuri, beltz itsasoa:  
izotz bat untzi gure ibilgoa...  
Bakarte yaungoikozkoa!  
Xoil, egazti bat diyoa  
odeien senide, zabal egoa...

Kanta ditzagun ango gau luze,  
ango illun-nabar su gorritz bete;  
gizonek elurra aterpe;  
lurralde gizenik gabe;  
gure Euskalerriaz ain guziz beste!

\* \* \*

Iri nagusi, giza-erlauntza:  
zorapenezko aruntz-onuntza,  
sumabearra, yakintza,  
sal-eros ekurugaitza,  
gure elkar-indarrak itzuli bitzal

Ortzi oro ta egute oro  
yaso, ikus-ala, ta abes gozoro...  
Apaindu zernaitarako:  
agi gai adierazteko  
gizaki guzien alderdi ta asmo.

## **GURENTZA**

Ta, beeko gaiok agor-ezkeroz,  
Iguzki'k ezin urtuzko egoz  
(Ikar'ek ez bezelakoz)  
goazeman zerura igoz,  
izar urdiñetaraiñoako asmoz!

1931

# ASABA ZAARREN BARATZA

*Barrena'tar Polikarpa, adiskide min  
ta abertzale yatorrari, biotzez.*

## I — Atarian

Asaba zaarren baratza,  
untzadun ormek esia,  
eguzkiak leen maitea...  
Otzaldi zoro baten itzuli,  
yoka nagokik atea.

Yoka nagokik atea,  
ate gorri zurezkoa,  
euri zaarrek usteldua;  
marraskilloek bide biurri  
dirdaitsuez apaindua

Bai-bainun amona xaar bat  
zazpi begiko baratzai;  
deadarkari yaioa  
marrubi-lapur nenkusanetan...  
Bizi ote-dut gaxoa?



## II — Sarrera

Sar eta... zuaitz yantziak.  
Urrats bat egin, ta... adar uts.  
Oroipen-txoriez zeuden  
beterik: ni ikus ta, bat-batean,  
20 egoei eragin ziten,

Nigana datoz, naasian...  
Adiskide min-maiteak!  
Barru-muiñeko gauean,  
su itzalitzako zaarra gar gorri  
dabil da biur-naiean.

Belar gaiztoak yan ditu  
nire bidexka izkutuak...  
Ale bakanak dakartzi  
bide gaifleko maastiak, eta  
ortziak peitu du iguzki.

Urte yoanen zitala!  
Zuek zarpildu-itzalia  
leenera nork lekardake?  
Zabal-naroa nuen baratza,  
gaur ain estu, gaur ain gabe!

### III — Leena

Baratz-erdian dut arki  
amona: alderoka dator,  
begi galduak nora-nai...  
Eriotzak dakar besalagun,  
bere buruz ezpaita gai.

Amona, zatozkit, otoi:  
billoba laztan ezazu,  
esan zadazu «billoba!»  
Itz ori, soilki, zaarrak dit ondu,  
ardoa oi-dun bezela.

Biraka asi zan, dei ta dei:  
aita dei, ta ama; aurtzaroko  
lurrak irentsi-lagunak...  
Zaarrez birrumetu danez-gero,  
menbeko darabil leenak.

Errukarri! Lausorik du  
gizargia begietan...  
Non-nai aldiaren sitsa!  
Zu'ka, zoroki, mintza zitzaidan,  
zaldun arrotza bainintzan.

Laztan dut. Bera, arrituta,  
begi-begira dagokit.  
Gero, geldiro: «Nor zaitut?...»  
Euskeraz ark niri galdegiña  
gogoan besterik ez dut!

Nire begien suz sutu  
naiez bereak, diotsat:  
«Billoba nauzu, zaarrena...  
»Zure marrubi gorriak iñoiz  
»ostutzen oi-nituena...»

Oroi ote?... Begietan,  
zalantza dut tximistarik  
iragan zuelakoa.  
Burua igurtzi zidan astiro,  
esanaz: «Zu...? Zu...? Gaxoa!»

Ta asi zan biraka berriz,  
il zaarrei oska, negarrez,  
eriotzaren egarri...  
Bizitzaren ondar-aleak  
larraiñean eultzen ari!

## IV — Oraiña

Ta, ara, bidean, baldarño,  
muttiko bat guregana:  
ark birbilloba, nik seme.  
Ikus amonak, bertan gelditu,  
ta aren eztizko irriparre!

Laztan du, pozak zoratzen:  
«I aut, orain akust ongi!»  
(diotsa) «I aut, bai, “olako”!...»  
Ta... nere izenez igurtzi zuen  
burutik oiñetaraiño.

Leena zegoen oraiñaz  
ele gozoka. Bitzuok  
mintzo beraz ziarduten.  
Ene asaben lokarri zaarra,  
Yaunari zor, etzan eten!

## V — Etorkizuna

Ordun eguzkiz yantzi zan  
asaba zaarren baratza;  
ordun, zuaitzak igaliz;  
ordun baratza leeneratu zan  
mugak berriro zabaliz.

Ta leen ikusi-gabeko  
zuaitz berri bat zegoan  
erdian, guzien buru...  
Aren gerizak erri-baratzak  
ezin-ilkor egin ditu.

Nire Tabor-mendi: nire  
baratz zaarraren antzalda!,  
egi, mami, biur adi:  
leenaren muiiak aldatu beza  
baratz zaarra baratza berri!

# IZOTZ-ONDOKO IGUZKI

Izotzondoko iguzki,  
neguaren parre:  
olerkariak noizpait  
iri goratzarre.  
Emeki duk itxaroz  
piztu garai-larre:  
udaberri-lamiak  
larreon batzarre.

Beetik nator, ibarrak  
izoztuta utziaz.  
Mendia yaiez dago  
urrezko yantziaz.  
Aren parrea dadat  
irrika biaz,  
gozatua baitu gaur  
ezti bereziaz.

Udalenak irria  
oi-du zoro ozena;  
Udak, aragikoia;  
udazkenak, bena;  
negu-gau ozkarbien  
izotz-ondorena berriz,  
bakarra duzu;  
denetan emeena!

Bai-baitator urrundik  
Gabonetarako  
seme zaarra: bidean  
elurpe du oro;  
etxeko sutondoan  
bixkortu ezkerro,  
ikus aren ezpainen  
parreantxa gozo!

Bai-baitatza eria  
ogean: erio  
atzapar itsusia  
luzatzen ario:  
berbizkunde-berria  
maiteak yario:  
itzik ezin ta irria  
ain eni dagio!

Sagasti soilla lotan,  
abar makur naaspil;  
zelaiek, orbelpen,  
ametsetan Orril;  
txori gaxoei aztu  
gau latzaren urbil;  
aizeñoa lillurak  
otxanduta dabil.

Aranak mailka daude  
gorantza yarriak;  
guzien ondarrean  
laiño urdin, begiak;  
izotz-arnasa, agian,  
baititu iguzkiak  
zernai tauparazteko  
men zoragarriak.

Ezker-alde Orexa,  
eskui, Altzo-muño;  
non-nai euskel-oiartzun  
ortzi-mugaraiño...  
Dabesadan, ibarrak  
laiñotan daudeño!  
Dabesagun, lagunok:  
geroak ereiño!



Aran ta muño gaiñez  
Aralar aundia,  
euskotarren zaindari  
Mikel'en mendia:  
koskak elur-dirdaiek  
bil ta, dirudia  
amets eder mamitu  
ortzian geldia.

Yondone goiaingeru  
garaille goitarra,  
gure arazo latza  
duk bizi-bearra;  
artarako, nagusi  
dukan Yaun bakarra  
ire bidez dotoigu,  
damaigun indarra.

\* \* \*

Izotzak estali zun  
gure Euskalerra;  
mintzo ozenak zabaldu  
berbizkun-berria.  
Itzal-zokondoetan  
lore, izotz-bitxia;  
baiña gaiñetaz ari  
yauntzen eguzkia.

Izotz-ondo. Neguak  
parre eme. Gizadi  
larria gaillurreruntz,  
muñoak mailladi.  
Gazte-sail kementsua  
goraiño badadi,  
izozpetik eguzkik  
yare dik Euzkadi!

# GURE MINTZO

*Arana-Goiri'ren oroiz ta eskarrez.*

Nerekin yaio nun abesmiña,  
ta aurtandik min ori dut izan samiña...  
Kanta nai, nai alper: mintzoa  
peitu, miñak bear-eztigai gozoa!

Uts bainun oskai guri berexa,  
atsa yaurti arren ezin sor abesa;  
amets-arteko oiu bailitzan,  
otsaren-zakarrez izu-lkara nintzan.

Il-zaarki, bizi dugun gizona!  
Egunoro berpiz lurpean dagona!  
Bezat onets aren izena,  
aberriz ta mintzoz gu yantziarena.

Aren argibidez ni yabetu  
enegan bazala norbait atxilotu.  
Ordun, yetxi nazu lezera;  
nork gere inuiñean dugun itzalera.

Oin kolokak zuur, begiak yoran,  
zurubi biurrez poliki ninyoan.  
Guri argi ematearren  
itzaliarena, eskuan nenkarren...

Orra noizpait ere beeraiño el,  
ta leotza arki dut ondoaren sabel,  
ta, leotzean, il-iduri,  
gizalaba eder odol-gabez zuri.

Ipui zaarrak, atozte gogora!  
Atozte erregingai begizkoak zora!  
Bazterrean ikus nerea,  
ene ta ene asaben oarrezak botea...

Adatsa busti diot negarrez,  
biotza berotu nerearen garrez,  
ta ito-larria arin-bearrez  
leio zekenera dut nerekin narrez.

Berriz-yaio-poza suma nuen...  
Gezal mugagabez bide-ginyoazen:  
bizitza-itsaso otxan barea,  
goiz-eguzkiaren txinpartez erneal

Ezpaiñak dardar, lepo-zaiñak ler-  
bearrean, muinki dut estu nere eder  
besoetan, ta atsa yaurtiki:  
ta ura bai, egin zan aoan abesti!

Aapaldiak elkarren ondoren  
yalki ta, uso zuri antzean zetozen  
itzuli, itxaso urdiña zear,  
mokoan, edergai, basoaren abar.

Itzuli zetozen aapaldiak;  
itzuli zetozen nere uso txuriak  
Aberriarentzat damesgun  
legor gizenetik, yai-ostoa lagun...

\* \* \*

Ene leozpetu yare-berri,  
eusko orok zaitzagu miñen eztigarri,  
ta besteren gogo-menbetik  
yare-gagizu usu, geurea gaiturik!